

Ortodoxia eta eskolak

Las grandes religiones del mundo han conocido versiones teóricas y prácticas distintas en su credo y organización, variantes cristalizadas en momentos de especial crisis o de auge social o religioso. Por otra parte, en cada una de ellas y dentro de una determinada confesión, han visto la luz Corporaciones, Escuelas y Espiritualidades que han alcanzado un arraigo duradero. El fenómeno se repite también en el Islam.

Islamari begira, dena berdin ikusteko joera dugu urrundik, batasun bakar eta berdinean, alegia. Ez dago horrelakorik, eta hiru Islam nagusi topa ditzakegu, hirurak ezberdinak baina denak mahomatarrak: sunismoa, xihismoa eta khârijismoa. Hori horrela, hauetako bakoitzak bere Eskola eta interpretazio ezberdin eta kontrajarriak ere baditu Islamaren doktrinaz eta historiaz.

Sunismoaren izena *sunna* ('usadio') terminotik dator, eta Mahomaren hitz idatziak ez ezik haren portaera, jarrera eta iritziak ere jasotzen ditu, onartu zituenak bezala gaitzetsi zituenak ezagututa nahiz une jakin batean bere egin ez zituenak ere. Guztiek osatzen dute araubide bat. *Sunnari* esker, Koraneko arau-hutsuneak ere osa daitezke, esate baterako eguneroko errezoen erritualak nolakoa izan behar duen zehazteko balio izan du *sunnak*.

Sunismoa da Islamaren Adar nagusia, sunita baita gutxi gorabehera musulmanetako %85. Hainbat herrialdetan banatuta daude sunitak: Ipar Afrika eta Afrika Beltza, Egipto, Siria, Irak, India, Indonesia eta abarretan topa daitezke. Zabalkunde horren ondorioz, sunismoaren oinarrizko batasunarekin batera

Islamaren kulturazio kontrajarriak ere aurki ditzakegu hainbeste herrialdetan.

Apenas dagoen esan beharrik, herrialdetako historia eta kulturetatik ohitura, erritu eta sinesgai ugari iritsi dela tokian tokiko Islam herritarrera. Meskiten arkitekturan bertan ikus daiteke zein aldakorrak diren gauzak (horren irudi dira, adibidez, meskita txinatarrak).

Islamaren bigarren Adar handia **xihismoa** da. Mahoma hil ondoko hiruzpalau hamarkadetako historia nahasien emaitza izan zen xihismoaren sorrera. Mahomak, hiltzean ez zuen utzi bere ordeko buruzagi izendaturik, eta botere politiko-erlijioso eskuratzeko hautagaiak ez zen falta izan, Mahomaren familiaretan bezala haren prediku erlijiosoan hurbilekoak izan zituenen artean. Egin kontu, gainera, Mahomaren oinordekotzan, mezu erlijioso eta proiektu politikoa batera zetozela.

Hari segida eman zioten *kalifak* (agintari nagusi politiko-erlijiosoak zirenak, alegia) aukeratuak izan ziren, salbu 'Umar (Abu Bakrek izendatua): Abu Bakr (632-634), 'Umar (634-644), Uthman (644-656) eta Ali (656-661). Azkeneko bi hauek erailak izan ziren.



Ali hori Mahomaren suhia zen, haren alaba Fatimaren senarra hain zuten. Siriako gobernari Mu'awiyah erreboltatuarekin lehian, Ali galtzaile atera zen, eta 661ean hil zuten. Mahoma beraren hitzek balio izan zuten kalifatarako Aliren eskubidearen alde, eta heriotza hura sinbolo historiko bilakatu zen, beraren jarraitzaileentzat. Aliren seme Husein-ek eman zien jarraipena Fatima eta Aliren eskubideen defentsari, harik eta Kerbalako guduan hil zuten arte (680).

Xihitentzat Husein *imam* handia izan zen, Allahren aurrean bitartekari bakarra, Profetaren mailakoa. Ondoren, sekula sekulatan "imam ezkutuak" elkarren jarraian datoz, eta munduaren bukaerakoan agertuko da azken Imama. Imam ezkutuari buruzko doktrina eta interpretazio ezberdinak ezagutu ditu xihismoak; baina, hori gorabehera, xihismoak bere nortasuna eta historia segurtatu du, batez ere Irak eta Iranen.

Khârijismoa da Islamaren hirugarren Adarra; gaur egun *ibadita* deituak dira Adar honen jarraitzaileak, eta Oman dute beren lurralde nagusia: ez dira asko (hiru milioi). Beren jatorrian, Ali-ren armadakoak ziren, baina kalifaren hautaketa ez zuten nahi izan negoziazio bidez egin, eta Koranak zituen irizpideen arabera egin behar zela-eta, etorri zen Adar honen sorrera. "Sinestun zaharrak" bezala aurkeztu den talde da hau.

VII. mendeko bigarren erdi-aldian bizi izandako nahasmendu erlijiosoari aurre egin

nahiez, erlijiotasun hertsia goa zaindu nahi izan zuen khârijismoak, politikak ekarritako hondamendiari erlijiotasunez erantzun behar zitzaioala aldarrikatuz.

Dena den, tartean egon zen musulman arabiarren eta beste herrietako konbertituen arteko lehia ere: "nazio musulmanaren" barruan, khârijitek sinestun guztien berdintasunaren alde jokatu nahi izan zuten, kalifaherria indartu ahala gertatzen ari zenaren kontra.

Bekatariari jatortasun islamiarra ukatzeko joera egon zen Adar honetan, eta musulman ez-khârijitak apostatatzen hartzeko. Berauek ez dira salbatuko, zioten, eta Allahren errukiak ez ditu babestuko. Azaleko eta obra egokirik gabeko islamiartasunaren aurkako erantzuna da Adar honen teologia. Gaur egun khârijismo moderatua da haien ondorengo bakarra (*ibaditak*: Tunisiako Djerba-n eta Aljeriako Mزاب eskualdeko bizilagunak).

Eskola juridiko-teologikoak. Hiru Adar horietan batasun anitz bat ageri zaigu, bakoitzean hainbat Eskola juridiko-teologiko baitago: sunismoan lau Eskola bederen aipa ditzakegu (hanafita, malikita, xafiita, hanbalita/wahhabita); xihismoan hiru (duodezindarrak, ismaeldarrak, zaidistak). Bakoitzak du, noski, demografiarekin batera bere lurralde-geografia.

Erljio anitza eta sakabanatua du Islama, iraganean eta egun ere.

Joseba Intxausti